



ISILAK

Todos estamos invitados pelikula (Manuel Gutiérrez Aragón, 2008)

Iraupen osoa: 90 minutu



CENTRO MEMORIAL DE LAS
VÍCTIMAS DEL TERRORISMO
TERRORISMOAREN BIKTIMEN
OROIMENERAKO ZENTROA

MAILA

Batxilergoa.

HELBURUAK

- + Terrorismoak gure herrialdean egindako ekintza izugarriak identifikatzea, haren ondorioei buruz hausnartuz, eta onartzea indarkeria terrorista ez dela erailketarekin hasten.
- + ETak mehatxatutako pertsona askok bizi izan zuten errealitatea ezagutzea.
- + Terrorismoaren biktimen sufrimendura modu enpatikoan hurbiltzea. Mehatxuek eta hilketek gain, biktima horiek bazterketari eta bakardadeari aurre egin behar izan zioten.
- + Gogoeta egitea ETaren mehatxu eta atentatuen aurrean denbora luzez isilik egotea erabaki zuten herritar askoren jokabideari buruz, eta jakitea bazeudela erakunde terroristari jendaurrean aurre egitera ausartu zirenak.

GAITASUNAK

- + Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna; izan ere, jarduera egiteko ezinbestekoa izango da ulermenezko irakurketa eta ahozko adierazpen egokia.
- + Gaitasun sozial eta zibikoa; izan ere, biktimaren lekuan jarri beharko duzu hari egindako bidegabekeria ulertu ahal izateko, haren minarekin bat egiteko eta bizikidetzak baketsuaren alde egiteko.
- + Gaitasun digitala, gailu mugikorren bidez kontsultatu ahal izango baituzu, eta iradokitako jarduera osatzeko beharrezkoa den informazioa bilatu.

DENBORALIZAZIOA

Jarduera hau 75-90 minutuko modulu baterako pentsatuta dago. 30 minutu pelikulatik aukeratutako zatiak ikusteko eta 45-60 minutu ondorengo jarduerarako.

Pelikula osorik ikusi nahi izanez gero, ikusteko denbora 90 minutukoa izango da.

BALIABIDEAK

Todos estamos invitados pelikulatik aukeratutako zatiak: 11.37tik 20.59ra (elkarte gastronomikoaren eszena), 23.00tik 28.54ra (salaketaren eszena), 60.28tik 74.55era (gutunaren, elkarte gastronomikoa zren eta amaieraren eszenak). Iradokitako jarduerarekin inprimatutako materiala, boligrafoak, orri zuriak eta gailu mugikorrak, hala nola smartphoneak edo tabletak.

EGILEA

Roncesvalles Labiano

IRADOKITAKO JARDUERA

Filma ikusi aurretik

Manuel Gutiérrez Aragón (2008) zuzendariaren *Todos estamos invitados* filmean Xabier Legazpiren istorioa kontatzen da. Legazpi unibertsitateko irakaslea da, eta Donostian bizi da bere neska-lagun Francescarekin. Irakaslea ETaren terrorismoaren aurka agertzen da jendaurrean, komunikabideetan agertzen diren idazki eta adierazpenetan, eta horrek erakunde terroristaren eta haren ingurunearen jomugan jartzen du. Pelikulako pasarte hautatuetan, lehen mehatxuak nola jasotzen dituen ikusten da, hurbilen duen ingurutik ere iristen zaizkionak, lagun kuadrillarekin afari batean, eta, nola ordutik, bere bizitza oso nahasita geratzen den. Hila izateko beldurrari eta eskoltarekin bizitzeko ohiturari aurre egiteaz gain, bazterkeriari eta bakardadeari aurre egin beharko dio, inguruko jende askoren koldarkeriak eraginda.

Pelikulan iradokitako zatiak ikusi ondoren

Xabierrek Iribarren lehen mehatxu zuzena jasotzen duenetik, hiltzeko beldurrari ez ezik, isiltasunari, marjinazioari eta bakardadeari ere aurre egin beharko die. Lankideek ez ikusiarena egiten diote, ikasleek ez diote entzun nahi, eta bere lagunak ere ez dira ausartzen jendaurrean babesa ematera, zipriztinduak izateko beldurrez.

Pelikulan Xabierren lagunek nola jokatzten duten ikusi ondoren, galdetu zeure buruari:

1

Nola uste duzu erreakzionatuko zenukeela lagun-afari horretan egon eta Iribarren mehatxua entzun izan bazenu?

2

Nola uste duzu sentituko direla mehatxuen aurrean isildu diren lagun horiek Xabierri azkenean gertatzen zaiona jakiten dutenean?

3

Inoiz isildu al zara injustizia larri edo ez hain larri baten aurrean, Xabierren lagunek afari horretan egiten duten bezala?

Idatzi zure gogoetak orri batean, eta partekatu pentsatu duzuna zure lauzpabost kiderekin. Ondoren, erantzun galdera hauei:

1

Zergatik uste duzue Xabierren lagunek horrela jokatzten dutela?

2

Zer eragin izan dezake lekukoaren isiltasunak Xabierrek bizi duena bezalako egoera bidegabe baten aurrean?

Zuen hausnarketak gainerako taldekideekin parteka ditzakezue, eta jarraian datorren den testua irakur dezakezue hurrena.





Andoainen agertutako mehatxuzko pintada. José Luis Velaren artxibo pertsonala.

ISILTASUNAREN KIRIBILA

Todos estamos invitados pelikulan bezala, errealitatean ere euskal herritar askok isiltasunaren alde egin zuten luzaroan etakideen terrorismoaren aurrean. Arrazoi nagusia, kasu askotan, beldurra zen. Florencio Domínguezek *Las raíces del miedo* (2003) liburua idatzi zuen hori azaltzeko: "Euskal Herriko azken 25 urteetako historia ezin izango da bere konplexutasun osoan ulertu, aldi horretan zehar zeharkatzen duen faktore bat kontuan hartzen ez bada: beldurra. Populazioaren zati handi bat, ziur asko gehiengo, beldurraren mende bizi izan da denbora horretan, garaia araber gutxi-asko biziagoa. Sentimendu horrek, gehienetan ukatua eta ezkutua, sarritan baldintzatu du herritarren jokabidea, oinarritzko balio sozialak erabat aldatu ditu eta bizitza publikoa desitxuratu du"¹. (2003:17).

ETAren eraso zuzena jasateko beldurra izateaz gain, seinalatua eta baztertua izateko beldurra ere bazegoen. Domínguezek azaltzen duenez, horrek *isiltasunaren kiribila* sortu zuen Euskal Herrian. Hau da, beren iritzia minoritarioa zela hautematen zuten herritar askok hura ezkutatze eta isiltzeko joera izatea eragin zuen, ustezko gehiengoak

estigmatizatu edo isolatuko zituen beldur. Horren ondorioz, iritzi batzuk gero eta isilago geratzen ziren, eta, beraz, beste batzuek gero eta gehiengo handiago baten babesa zutela ematen zuen, nahiz eta egiazki hala ez izan.

Beldurraren eta isiltasunaren kiribila, geldiarazteko hain zaila, martxan zegoen, eta gutxi batzuk baino ez ziren ausartu hasieran aurre egiten. Nola egin zuten jakin nahi baduzu, RTVEko *Novéntame otra vez* saioko *Cuando se rompió el silencio* erreportajea ikus dezakezu, hemen aurkituko duzuna:



1 Domínguez Iribarren, Florencio (2003). *Las raíces del miedo*. Madril: Santillana, 17 or..